

A stylized illustration of a white hand with purple outlines holding a large, round, orange magnifying glass. The hand is positioned on the left side of the image, with the thumb and index finger gripping the handle. The magnifying glass is held up, and its lens is empty. The background is a solid teal color.

ASEGURUAK *aztergai*

Estefanía Rodríguez Otero

Aurkibidea

ASEGURUEN NEGOZIOA	4
Arrisku-faktorea eta koefizientea	5
Ikuspegi Mikroekonomikoa: Aseguruen Garrantzia familia-ekonomian	6
Aseguru jardueraren finantza-baldintzatzailea: interes-tasa baxuko ingurunea	10
ASEGURUEN SEKTOREA ZENBAKITAN	12
Mutualitateak ala S.A?	14
Aseguruen sailkapena primen bolumenaren arabera	15
ASEGURUAREN SEKTOREAREN INBERTSIOAK	16
ASEGURU-ETXEEN NEGOZIO USTELAK	18
Klima-aldaketa	19
Armetan egindako inbertsioak	20
ALTERNATIVAS ÉTICAS EN EL SECTOR ASEGURADOR	22
Aseguru etikoak	23
ETHSI zigilua	24



Egilea:

Estefanía Rodríguez Otero
(NORTLAN, seguru artekaritza etiko eta solidarioa)

Koordinazioa:

Garapen Iraunkorraren aldeko ekimenak
sustatzeko eta bultzatzeko Elkarte

Finantzaz Haratago

Honako erakundeek laguntzarekin:





Aseguruen NEGOZIOA

Zorionez, gure autoa matxuratzea, ur jario bat izatea edo ebakuntza baten beharra izatea ez dira egunero gertatzen zaizkigun gauzak. Hala ere, aseguruak bermatzen dute, gertatuko balitz, gastuak bere kontu hartuko lituzkeen norbait egongo lirатеkeela.

Eta aseguruak erabiltzen ez dudanean bitartean, zertarako erabiltzen dute ordaindu dudanean dirua?

Aseguruak kontratatzerakoan, arriskuak mutualizatzen ari gara, hau da, gure ekarpenarekin eta beste askorenarekin batera, gutxi batzuen ezbeharrek sortutako gastuak estaliko ditugula onartzen ari gara. Taldekako elkartasun mekanismo moduko bat da, eta horrekin onartzen dugu gure primaren bidez besteen beharrei erantzuna emango zaiela.

Mutualizazio printzipio honetaz gain, aseguruak onura ukaezina dakarkigu: ezustekoa geuk jasaten dugunean babesa bermatzen digu, alegia. Aseguruen bidez, bestela ezinezkoak izango lirатеkeen gastuei aurre egin diezaikegu, aseguratu batek bere bizitza osoan zehar ordaintzen dituen primak gehituta ere ezingo lituzkeelako.

ARRISKU-FAKTOREA ETA KOEFIZIENTEA

Aseguru konpainiei dagokienez, hiru bezero mota daude: arrisku handikoak, ertainekoak eta txikikoak. Arrisku handikoak, interesatzen ez zaizkienez, normalean ez dituzte onartzen eta dagoeneko onartu bazituzten, lehen edo bigarren urtean haietaz libratzen dira, ez baitira errentagarriak.

Aseguru-etxeek arrisku ertaineko bezeroak onartzen dituzte, baina horiek ez dituzte behar adina irabazi eskaintzen; arrisku txikiko bezeroak dira aseguru konpainien bihotza.

Aseguruak koefiziente batean kuantifikatzen dute arrisku faktore hori. Koefiziente hori zatiketa sinple baten emaitza da, bezeroak sortzen dituen gastuak urtero ordaintzen duen diruarekin zatituz. Demagun urtebete zehar konpainiari 200 € kostatzen zaion parte bat eman duzula

parte-hartze horiek eskatzen dituzten gastuak estali.

Aseguruak finantza-sektoreko jarduerak mota bat da: pertsona fisiko edo juridiko batek (aseguratuak) jasaten duen arriskua beste entitate bati (aseguratzailerak) transferitzean datza. Modu honetan, arriskua gauzatzen bada, aseguruak, erantzukizun ekonomikoa ordainduz, aseguratuak jasandako egoera arintzeaz arduratzen da. Kontratuak edo polizak ezarri beharko du, gutxienez, aseguratuak ordainduko duen ordainketa edo prima, aseguratzailerak ematen duen prestazioa eta zein baldintzatan dagoen aseguratzailerak prestazioa ematera behartua (ezbeharra).

Aseguruak hainbat abantaila sozial eskaintzen ditu: hirugarrenenganako erantzukizuna suspertzen du, aurreikuspen joera sustatzen du pertsonen artean eta garapen ekonomikoa ahalbidetzen du, produkzioa eta azpiegiturak babestuz, aurrezkiak sortuz eta epe luzeko inbertsioak finantzatzuz.

eta urtero 400 € ordaintzen duzula, beraz: $200/400 = 0,5$. Horri koefiziente deritza eta ezkerrean zeroa duenez, enpresentzat balio positiboa da. Zer erakusten digu zatiketa sinple honek? Bezeroak urtean zehar ordaintzen duenaren erdiaren baliokidea gastatu duela. Koefiziente hauekin jarraituz, 0,5 eta 1 bitarteko balioak arrisku faktore ertaintzat hartzen dituztela ikusiko dugu, unitatea den koefizienteak gastuaren irabazi berdina sortzen dituela adierazten baitu eta zenbait aseguratzailerak ez dute hori onartzen, muga 0,9an jarritik.

Aseguru-etxea enpresa denez, etekinak atera behar ditu eta horiek arrisku txikiaren taldearengandik lortzen ditu. Hori dela eta, enpresa horien irabaziak arrisku txikiko bezeroen kopuruarekiko proportzionalak dira.

IKUSPEGI MIKROEKONOMIKOA: ASEGURUEN GARRANTZIA FAMILIA-EKONOMIAN

Espainiako bost familiatik lauk inguruk, batez beste, auto aseguruak kontratatzen dute. Aseguru mota honek presentzia handiagoa du familien bizitzan, beste mota batzuekin alderatuta. Hori zentzuzkoa da, auto aseguruaren nahitaezkotasuna eta Espainiako gizartean ikusten den motorizazio tasa nahiko altua kontuan hartuta.

Etxebizitza nagusiaren aseguruak batez beste % 72ko kontratazio maila du. Hau da, familia espainiarren hiru laurdenek etxebizitza aseguratzeko du Espainian. Ohiko etxebizitza gehien aseguratzeko duten familiak Euskadikoak dira.

Osasun aseguruak batez beste % 21eko kontratazio maila du herrialdean. Hau da, bost familiatik batek osasun aseguruak du.


Familiaren % 45ek ehorzketa aseguruak kontratatzen du Espainian.

Erantzukizun zibileko edo EZ aseguruak da haren espezifikotasunagatik hedapen txikiena duena. Aseguru hau talde profesionalek edo nolabaiteko arriskua dakarren edo federatzea eskatzen duen kirola praktikatzeko dutenek kontratatatu ohi dute.

Espainian, familiaren aurrekontuaren % 4,3a aseguruak kontratatzeke erabiltzen dute familiak, eguneroko bizitzan jasaten dituzten arriskuak estaltzeko. La Autonomia Erkidego guztietan aseguruaren presentziaren ehunekoa aurrekontuaren %3aren eta %4aren artean dabil.



Familia bakoitzak asegurutan egindako batez besteko gastua 2019an:



Espainian bizi diren familiaren etxebizitzarako aurrekontuaren osaketa:

Gastuen osagaia	%
Elektrizitatea	% 22,08
Alokairu errealek (etxebizitza nagusia)	% 20,28
Komunitatearen gastuak eta etxebizitzarekin lotutako beste zerbitzu batzuk	% 13,69
Hiri-gasa eta gas naturala	% 7,29
Etxebizitzari lotutako aseguruak (etxebizitza nagusia)	% 5,65
Ur-horniketa	% 4,65
Erregai likidoak	% 2,91
Zabor biltzea zerbitzua	% 2,72
Saneamendu zerbitzua	% 2,29
Elektrizitatea (beste etxebizitza batzuk, garajeak eta trastelekuak)	% 1,88
Mantentze eta konponketarako materialak	% 1,81
Garajeen alokairuak	% 1,57
Gas likidotua	% 1,55
Igeltserotza eta bestelako mantentze zerbitzuak	% 1,53
Iturgintza zerbitzuak	% 1,41
Arotzeria zerbitzuak	% 1,38
Pintura-zerbitzuak	% 1,33
Alokairu errealek (beste etxebizitza batzuk)	% 1,21
Etxebizitzari lotutako aseguruak (bigarren etxebizitza)	% 0,80

Espainian bizi diren familien osasun aurrekontuaren osaera:

Gastuen osagaia	%
Farmazia produktuak	% 18,70
Osasun aseguru pribatuak	% 16,99
Beste gailu eta material terapeutiko batzuk	% 15,66
Betaurreko graduatuak eta lentillak	% 13,77
Hortz zerbitzuak	% 13,52
Mediku espezialista (anbulatorioa)	% 8,62
Beste zerbitzu paramedikoa anbulatorio batzuk	% 5,74
Ospitaleko zerbitzuak	% 2,60
Audiofonoak	% 1,98
Beste produktu mediko batzuk	% 0,86
Homeopatia produktuak	% 0,43
Medikuntza orokorra eta pediatria (anbulatorioa)	% 0,31
Errehabilitazio zerbitzuak, ekipamendu terapeutikoen alokairua, anbulantzia zerbitzuak eta tratamendu termalak	% 0,30
Analisi klinikoak eta diagnosi-proben moduko zerbitzuak	% 0,29
Haurdunaldi proba eta antisorgailuak	% 0,13
Gailu eta material terapeutikoen konponketa	% 0,09

Espainian bizi diren familien garraiorako aurrekontuaren osaera:

Gastuen osagaia	%
Auto berriak	% 20,17
Gasolioa	% 16,50
Gasolina	% 14,10
Ibilgailu pertsonalen mantentze-lanak eta konponketak	% 13,62
Auto-asegurua	% 10,76
Bigarren eskuko autoak	% 7,13
Nazioarteko hegaldiak	% 2,11
Bidaiarien garraio konbinatua	% 1,84

Aseguruetan erabilitako familia aurrekontuaren banaketa, kategoriaren arabera:

Osagaia	%
Ibilgailuen aseguruak	% 43,93
Osasun eta istripu aseguru pribatuak	% 21,15
Etxebizitzari lotutako aseguruak (etxebizitza nagusia)	% 17,99
Ehorzketa aseguruak	% 13,52
Etxebizitzari lotutako aseguruak (beste etxebizitza batzuk)	% 2,55
Beste aseguru batzuk	% 0,47
Erantzukizun zibileko aseguruak	% 0,20
Bidaia- eta ekipaje-aseguruak	% 0,18



ASEGURU-JARDUERAREN FINANTZA-BALDINTZATZAILEA: INTERES-TASA BAXUKO INGURUNEA

Interes tasa baxuko ingurumena oraindik ere faktore erabakigarria izaten da aseguru konpainien jarduera eta finantza egoerarentzat. Jakina denez, interes tasa-baxuek aldi berean eragina dute aktiboengan, inbertsioen etekin baxuagoaren bidez, eta pasiboan, hornidura tekniko maila handiagoa eskatuz, bereziki epe luzeko bermea duten produktuengan.

Egoera horrek errentagarritasun handiagoko inbertsioak bilatzea eragin du produktu lehiakorragoak eskaintzearen, eta horrek arrisku maila handiagoa hartzea suposatzen du inbertsio tradizionalagoekin alderatuta. Era berean, kredituaren arriskuen kudeaketa bereziki zorrotza eskatzen du.

Gainera, emaitzen gainekeo presio etengabeak gastuen kudeaketa askoz ere eraginkorragoaren beharra sortzen du.

Europako merkatuan, interes-tasa baxuaren inguruneak negozio-ereduan ere eragiten du, batez ere bizitza-negozioan, interes-tasa bermea duten produktu tradizionaletan jarduera gutxituz eta neurri handiagoan inbertsioaren arriskua hartzaileari egokitzen dioten produktueta jarduera zabalduz.

Gainera, bankuak aseguru-eragile nagusia bihurtu dira ohiko negozioaren arazoak konpentsatzeko.

Fusio hori hoberen adierazten duen terminoa "banku-aseguruak" da, finantza entitateen parte diren aseguru-etxeak, bezeroei haien bulegoetan kontratarazten dizkietenak. Haien pisua hazten jarraitzen du, aseguru-etxe independenteen eta mutualitate historikoen kalterako.

2019ko ekitaldian zehar aldaketak egon dira banku-aseguruen hitzarmenetan, bankuen berregituraketa eragiketen ondorioz. Hala ere, banku eta aseguru-etxeek apustu argia egiten dute operazio mota hauen alde, aurrekoek haien banaketa-sarea ematen dutelarik eta ondorengoek, aseguru-negozioetan duten esperientzia.

Afi-k zenbatesten du 2019an aseguruak banketxe espainiarren irabaziaren %25a ekarri zutela, negozio nazionala soilik kontuan hartuta.

Analistak honakoan bat datoz: joera gehiago areagotuko da banku-negozio tradizionala krisian dagoen heinean.

Joera honen zergatia ulertzea erraza da: dirua mailegatzearen negozioak arriskuaren ondorioz ia irabazirik ematen ez duenez eta tasa-interes baxua dela-eta, negozioaren oinarria aseguru kopuru handienari lotzea da, bakoitzak ahalik eta mozkin-marjina handiena duelarik.

Aseguruen negozioen eskolak (CECAS) dio lotura hauek beti direla kaltegarriak kontsumitzailearentzat: primak operadore independente baten bidez izango lituzkeenak baino altuagoak dira eta ez daude horren egokituta benetako beharretara.

Bizi-aseguruei dagokienez, merkatu kuotaren % 80 banketxeek kontrolatzen dute.

	Operadoreak	Aseguru-artekariak	BAO	Salmenta zuzena	Beste batzuk
Bizitza primak %	28,12	23,07	80,98	29,04	15,25
Bizitzakoak ez direnak %	71,88	76,93	19,02	70,96	84,75

* BAO: Banku-aseguruen Operadoreak



Aseguruen sektorea

ZENBAKITAN



Espainiako aseguruen sektorea tradizionalki entitate ugari osatu dute, nahiz eta nolabaiteko kontzentrazioa eduki.

Nahiz eta adar desberdinak egon, horietako gehienetan entitate talde aitzindari batek merkatu-kuotaren gehiengoa osatzen du eta hainbat adarretan espezializatutako entitate txikien multzo handi batek kuota txikiena haien artean banatzen du.

2019ko ekitaldiaren itxieran Espainiako aseguruen sektorea aseguru zuzeneko 203 aseguru erakundek osatzen dute. Horietako 30ek gutxi gorabehera merkatu-kuotaren % 80 osatzen dute primen kopurua kontuan hartuta.

2019an Erregistratutako operazio-erakundeen kopurua:

Aseguru zuzena eskaintzen duten aseguru-etxeak	203
Berraseguru Erakundeak	4
Pentsio planak	2547
Pentsio Funtsak	1461
Erakunde kudeatzaileak	79
Entitate gordailuzainak	37
Aseguru bitartekariak	72.996

Lehen 10 aseguru erakundek 2019an merkatu-kuotaren %49,3a osatzen dute. Hori aseguruen sektorearen kontzentrazioaren adierazgarria da, gainerako %50,7a 194 aseguru-etxeek osatzen baitute.

Lehen 10 entitateekin gertatzen den moduan, lehen 5 erakundek hartzen duten merkatu-zatiak igoera arina eduki du 2019 urtean zehar. Zehazki, 2018arekin alderatuta merkatu kuota ehuneko 1,5 puntu handitu da.

Zifra horiek eskumena duten entitateen pixkanakako murrizketaren ondorioa dira. Azken urteetan, murrizketa hori banku sektorearen berregituraketaren ondorioz gertatu da eta zuzenki izan du eragina kreditu entitateei lotutako aseguru-entitateen fusio eta absortzio prozesuetan. Baina argi iradoki daitezke prozesu honetan erabakigarriak diren hainbat faktore, hala nola: 2009/138/CE zuzentarautik eratorritako baldintza kuantitatibo eta kualitatiboak era eraginkorragoan betetzeko dimentsio aproposago bat bilatzea, interes-tasa baxuko egoera luzatzearen zailtasunak edo teknologia berriekin gero eta lotura estuagoa duten bezeroek exijitutako transformazio digitala.

MUTUALITATEAK ALA S.A?

20/2015 Legearen 27. artikuluaaren arabera, aseguru-jarduera sozietate anonimoaren, mutualitateen, kooperatiben, gizarte aurreikuspeneko mutualitateen, Europako SAre eta Europako kooperatibaren forma juridikoa hartzen duten erakundeek egin dezakete.

Erakunde Aseguratzailleak da Mutualitateak eta Aseguru-etxeak (sozietate anonimoak) hoberen biltzen dituen terminoa, Aseguruen arloko Enpresa Elkartearen arabera. Bi erakunde aseguratzaille motak legeak arautzen ditu. Hala ere, horietako bakoitzak hartzen duen tratamendu eta forma juridikoan desberdintasun garrantzitsuak daude.

Aseguru-etxeak

Aseguru-etxeak edo Erakunde Aseguratzaille Pribatuak haien jarduera ekonomikoa segurtasun zerbitzuko produktuetan oinarritzen duten enpresak dira, kontratatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoentzako zenbait arrisku ekonomiko estaltzen dituztenak.

Sozietate anonimo gisa eratzen dira eta haien kapitala akzioetan banatuta dago. Helburua haien akziodunentzako etekinik handiena lortzea da. Haien jarduera aberastasuna metatzeko eragiketa da, gertaera ekonomiko desegokien eraginpean dauden subjektu askoren ekarpenen bidez, metatutakoa beharra jasaten duten gutxi batzuetara bideratzeko. Aseguru Konpainiak bere osotasunean hartzen ditu kontuan arrisku horiek: aseguru hartzaile batzuek baino ez dituzte jasaten, estaldura ordaintzen laguntzen duten askoren aldean.

Mutualitateak

Mutualitateak elkartasun eta elkar laguntzaren printzipioen arabera jarduten duten irabazteko asmorik gabeko erakundeak dira, eta horietan hainbat pertsona borondatez sartzen dira konfiantzan eta elkarrekikotasunean oinarritutako zerbitzuak eskuratzeko. Mutualitateko kideek, mutualistak deitzen

direnak, erakundearen finantzaketan laguntzen dute aldizkako kuota baten bidez. Bazkide kuoten bidez metatutako kapitalaren bidez, erakundeak bere zerbitzuak eskaintzen dizkie behar dituzten bazkideei.

Horrek esan nahi du Aseguru Mutualitateek lortzen dituzten irabaziak bazkide mutualisten artean banatzen direla, baina beti ere, aseguraturako kideentzako onura handiena mutualitateak eskaintzen dituen zerbitzuen bidez lortzeko asmoarekin. Horren ondorio nagusia da tasak eta hobariak oso lehiakorrak izaten direla mutualistentzat eta haien familientzat.

- Mutualitateen oinarrizko printzipioak honakoak dira:
- borondatezko bazkidetza
 - antolaketa demokratikoa
 - neutraltasun instituzionala: politikoa, erlijiosoa, arrazakoa eta gremiokoa
 - jaso beharreko zerbitzuen araberrako ekarpena
 - soberakinen kapitalizazio soziala
 - hezkuntza eta mutuari buruzko eta gizarte-formakuntza.
 - garapenerako integrazioa.

Aseguru-mutualitateez gain, beste bi mutualitate mota daude: Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateak eta Lan-istripuen eta Lanbide Gaixotasunen Mutualitateak.

2019an Erregistratutako operazio-erakundeen kopurua:

Sozietate anonimoak	126
Mutualitateak	30
Aurreikuspeneko mutualitateak	47
Aseguru zuzeneko erakundeak guztira	203

Aseguruen sailkapena primen bolumenaren arabera:

Zbkia.	Erakundea/Taldea	Aseguru zuzenaren bidez kontratatutako primak (eurotan)	Hazkundea	Merkatu kuota	Merkatu-kuota metatua
1	VIDACAIXA	8.581.882.102,84	% 4,43	% 13,38	% 13,38
2	MAPFRE MAPFRE ESPAÑA MAPFRE VIDA BANKIA MAPFRE VIDA BANKINTER VIDA VERTI ASEGURADORA CCM VIDA Y PENSIONES CAJA MURCIA VIDA CAJA GRANADA VIDA BANKINTER SEGUROS GENERALES	7.335.237.383,04 4.976.990.878,17 1.811.725.277,88 239.019.524,48 122.145.247,05 79.302.131,90 61.919.086,25 21.298.695,57 16.148.503,24 6.688.038,49	% 0,61	% 11,43	% 24,81
3	GRUPO MUTUA MADRILEÑA SEGURCAIXA ADESLAS MUTUA MADRILEÑA	5.454.767.907,78 3.862.968.512,58 1.591.799.395,20	% 3,50	% 8,50	% 33,31
4	ALLIANZ ALLIANZ ALLIANZ POPULAR VIDA FENIX DIRECTO	3.429.941.927,14 3.162.412.520,27 206.670.685,84 60.858.721,03	% -5,05	% 5,35	% 38,66
5	GRUPO CATALANA OCCIDENTE SEGUROS CATALANA OCCIDENTE PLUS ULTRA SEGUROS SEGUROS BILBAO A. CREDITO Y CAUCION NORTEHISPANA ANTARES	3.051.353.775,43 1.124.327.800,00 774.302.802,64 519.254.514,74 312.206.514,94 176.851.248,12 144.410.894,99	% 6,91	% 4,76	% 43,41
6	ZURICH BANSABADELL VIDA ZURICH INSURANCE ZURICH VIDA BANSABADELL SEGUROS GENERALES	2.953.896.687,85 1.768.244.665,23 907.638.807,60 150.904.150,94 127.109.064,08	% -16,64	% 4,60	% 48,02
7	GRUPO AXA AXA SEGUROS GENERALES AXA AURORA VIDA AXA XL INTER PARTNER ASSISTANCE	2.952.053.654,81 1.947.542.259,08 735.929.989,22 252.498.163,04 16.083.243,45	% 5,96	% 4,60	% 52,62
8	SANTALUCIA SANTALUCIA UNICORP VIDA SANTALUCIA VIDA Y PENSIONES PELAYO VIDA SOS	2.455.707.648,55 1.407.370.793,57 872.420.536,70 153.721.331,33 16.117.152,15 6.077.834,78	% -4,96	% 3,83	% 56,45
9	GENERALI GENERALI SEGUROS CAJAMAR VIDA CAJAMAR SEGUROS GENERALES EUROP ASSISTANCE	2.440.247.787,12 2.098.990.516,93 185.039.633,51 81.837.089,06 74.380.547,62	% 1,54	% 3,80	% 60,25
10	SANTANDER SEGUROS	1.693.715.523,97	% -14,32	% 2,64	% 62,89

Gogoan izan behar dugu aseguruaren barne beste enpresa batzuk daudela haien taldeetan.



Aseguru sektoreak kudeatzen duen euro bakoitzak, aseguria kontratatzen duen bezeroaren poltsikotik ateratzen denetik kontratuan hitzemandako ezbehar baten ordainagatik bezeroarengana edo beste asegurudun batengana itzultzen den arte, oso bidaia luzea egiten du. Batzuetan urte asko irauten duen bidaia da eta dirua ez dago inoiz geldirik.

Bezeroak euroa ordaintzen duenetik prestazio moduan jasotzen duen arteko denbora tarte horretan gertatzen dena aseguruen jardueraren zati oso garrantzitsua da. Hori honela da aseguruak, denbora horretan, euro hori inbertitzen duelako hazkuntza lortzeko eta, lanean jarritz, bere kaudimena handitzeko. Hau da, konpromisoei erantzuteko duten gaitasuna handitzeko.

Aseguruaren jarduerak inbertsio lana ezbeharrei arreta ematea bezain berezkoa du.

Aseguru sektore sendo batek kudeatzen dituen bezero, kontratu eta egoeren kopuru handien ondorioz, inbertsio etengabeak eta handiak egin behar ditu. Horixe da aseguru ia edozein ekonomiatan "erakunde inbertitzaile" bezala ezagutzearen arrazoa: finantza merkatuko eragile bat, inbertsio sarriak eta handiak egiten dituen eta, ondorioz, merkatu horien joera ezartzerakoan garrantzitsua dena.

Hori garatutako edozein ekonomiaren aseguru-sektoreari zabaldu badakioke, Espainiako kasuan bezala, are gehiago gertatzen da Europako aseguruetan.

2019an egindako inbertsioek ia 320.000 milioi euroko kopurura iristen dira; ondare netoa, balantze ekonomikoaren arabera, 363.000 milioi eurotik gorakoa delarik. Egiturari dagokionez, ez dago sektoreko zorroaren osaeran aldakuntza nabarmenik 2019ko ekitaldi osoan. Errenta finko publikoa guztizkoan pisu handiena duen aktibo kategoria izaten jarraitzen du (% 54,1), eta ondoren errenta finko pribatua (% 19,7); hirugarren postuan, inbertsio kolektiboko erakundeetan egindako inbertsioa dago (% 8,9koa izan zen aurreko urteko % 7,5aren aldean), eta laugarren postuan, errenta aldakorrean egindako inbertsioak (% 6,1), azken urteotan hazkunde txikia izan dutenak.

Aseguratzaileak bezeroek haien esku uzten dituzten baliabideen kudeatzaileak baino ez dira. Horregatik, diru-sartzeak lortzen dituzte (aseguruaren primak) eta, bildutakoa ezbeharrei aurre egiteko beharrezkoa ez den bitartean, eman zaien dirua inbertitzeko erabiltzen dute.

Aseguruek batez ere zor publikoan eta Espainiako konpainiek jaulkitako baloreetan inbertitzen dute. Neurri txikiagoan, funts eta akzio pribatuetan ere egiten dituzte inbertsioak, nahiz eta sektore pribatuan inbertitutako euro bakoitzeko sei inbertitzen diren zor publikoan. Ekonomiaren oparoaldi garaian - aseguruen salmentak handiagoak direnean, aseguruek BPGaren % 2aren pareko inbertsio gaitasuna lortu dute.

Horrek aseguru batek duen potentzialaren ideia ematen digu inbertsioak iraunkortasunaren bidera bultzatzeko orduan, armagintza industria edo erregai fosilengana bultzatu orde.


Inbertsioak guztira CICen arabera (ehunekoak):

	2017	2018	2019
1 - Zor publikoa	% 51,8	% 53,6	% 54,1
2 - Enpresen zorra	% 20,9	% 20,2	% 19,7
3 - Errenta aldakorra	% 5,6	% 5,8	% 6,1
4 - Inbertsio kolektiboko erakundeak	% 7,5	% 7,5	% 8,9
5 - Egituratutako finantza aktiboak	% 2,0	% 2,2	% 2,2
6 - Aktiboen titulazioa	% 0,4	% 0,4	% 0,4
7 - Eskudirua eta gordailuak	% 8,9	% 7,9	% 6,6
8 - Hipotekak eta bestelako kredituak	% 0,9	% 1,0	% 0,8
9 - Higiezinak	% 3,7	% 3,8	% 3,7

Aseguruak % 2ko BPGaren inbertsio gaitasunaren baliokidea izatera iritsi dira.

Aseguru sektorearen

NEGOZIO USTELAK



KLIMA-ALDAKETA

“Ikatzarentzat aseguru gehiagorik ez. 2018ko ikatza eta klima aldaketari buruzko aseguru sailkapena,” txostenak munduko 24 aseguru-etxe sailkatzen ditu ikatzaren sektoreak eta klima aldaketak haiengan duen eraginaren arabera, haien harpidetza, desinbertsio eta klima aldaketaren aurkako konpromiso politikak ebaluatuz eta sailkatuz. Sailkapena aseguru konpainiei (Europako eta Asia-Pazifikoko aseguru guztiak barne) egindako galdeketa bati emandako erantzunetan eta enpresa horiei buruz eskuragarri dagoen informazio publikoan oinarritzen da.

Aseguru konpainiak karbono gutxiko ekonomiarako beharrezko trantsizioa azkartzeko eta zabaltzeko egoera paregabe daude. Arrisku kudeatzaile bezala, paper isila baina ezinbestekoa betetzen dute gaur egungo gizartean eraiki eta aurrera eraman daitezkeen proiektuak zeintzuk diren erabakitzerakoan. Asegururik gabe, ia ezin da karbonoarekin lotutako proiekturik finantzatu eta lehendik eraikita dauden instalazioek arriskuak kudeatzeko modu berriak aurkitu beharko dituzte edo negozioa itxi beharko dute. Proiektu bat aseguragarria ez bada, ez da finantzagarria.

Mundrun-hareak ateratzeak eta ekoizteak karbono isuri oso handiak eragiten ditu, ekosistemetarako eta osasun publikoarentzako arrisku izugarriak ditu eta ia beti indigenen eskubideak urratzen ditu. Ez dago Pariseko Akordioaren helburuak lortzeko bide sinesgarriarik, eta aldi berean isuri masibo berriak sortu dira hamarkadetan zehar, mundrun-hare berrien garapenaren eta oliobideen proiektuen bidez.

Mundrun-hareak erauzteak, prozesatzeak eta garraiatzeak kapital handia inbertitzea eskatzen du. Garatzaileek arrisku handiak haien gain hartuko dituzten aseguru-etxeak beharko dituzte mundrun-hareen azpiegitura berrirako funts eta baimenak lortu ahal izateko. Mundrun-hareen aseguratzailen artean linea anitzeko aseguru handiak daude, hala nola AIG, Chubb, Liberty Mutual eta Zurich, baita Lloyd's-en merkatuaren bidez lan egin ohi duten aseguratzaila espezializatuak ere.



ARMETAN EGINDAKO INBERTSIOAK

Aseguruek, bankuek eta inbertsio funtsek armagintzaren industria milaka milioi euroekin finantzatu zuten 2014 eta 2019 artean, Bakearen aldeko Delàs d’Estudis Zentroak HECHOS-Financiación Ético y Soildari-rekin lankidetzan egindako txostenaren arabera. Txostenak bankuak eta enpresa handiak identifikatzen ditu, hala nola BBVA, Santander, ING, Deutsche Bank, Banco Sabadell, Bankia, Caixabank, AXA, BBVA Seguros, Santander Seguros, Allianz, Aegon, Liberty Seguros, BanSabadell Seguros, VidaCaixa, Mapfre, Línea Directa edo SegurCaixa Adeslas. Bankuek 12.000 milioi inguru bideratu zituzten zuzenean, eta aseguruek eta inbertsio funtsek 60.000 inguru zuzenean edo haien jabe diren bankuen bidez.

Txostenaren arabera, bankuek 12.000 milioi euro inguru finantzatu zituzten, aseguruek 30.000 inguru, eta pentsio planek beste 30.000 milioi.

Emaitza erabatekoa da, arma konpainiak gure kontu korronteen, eperako gordailuen bidez edo finantza merkatuengandik errentagarritasuna lortzen duten akzioen eta bonuen salmentaren bidez finantzatzeaz gain, armaren sektorea hedatzen laguntzen ari gara era erabakigarrian honakoak kontratatuz: aseguru pertsonalak (bizitza, osasuna), kalteak (ibilgailua, lapurreta, sutea) edo zerbitzuen eskaintza (bidaia laguntza, ehorzketa,...), baita pentsio planak kontratatzerakoan ere.

Aseguratzailea	Armagintzaren finantzaketa
1 BNP Paribas Cardif Assurance	11.078.539.426,13 €
2 AXA	5.336.684.413,05 €
3 BBVA Seguros	4.450.765.116,82 €
4 Santander Seguros	2.948.912.315,37 €
5 Allianz	1.559.548.068,98 €
6 MetLife	1.085.160.660,93 €
7 Intensa SanPaolo Life	941.429.817,99 €
8 AIG	763.086.826,24 €
9 Aegon	380.937.444,78 €
10 Liberty Seguros	339.109.208,90 €
11 March Vida	218.827.821,12 €
12 BanSabadell Seguros y Vida	169.240.937,02 €
13 VidaCaixa, S.A; SegurCaixa Adeslas	121.197.398,58 €
14 Mapfre	85.733.399,06 €
15 Línea Directa	66.311.891,11 €
16 Mediolanum International Life Limited	55.386.074,99 €
17 IberCaja Vida	38.502.929,66 €
18 Assicurazioni Generali	34.184.859,12 €
19 Seguros RGA	28.941.947,46 €
20 Abanca Vida	26.578.207,08 €
21 Cigna Life	17.721.349,52 €
22 Zurich	9.354.224,15 €
23 CHUBB	4.588.000,00 €
24 Mútua Madrileña	3.283.599,54 €
25 Helvetia	3.262.388,20 €
26 Lagun Aro	768.416,00 €
GUZTIRA ASEGURATZAILEAK	29 .768 .056 .741,80 €

ALTERNATIBA ETIKOAK

aseguruen sektorean

ASEGURU ETIKOA

Aseguru etiko eta solidarioena aseguru merkatuan finantza etikoen ohiko praktika etikoak eta solidarioak barneratzen dituen aseguru kontzeptua da.

Aseguru etiko eta solidarioak sektorearen balio sozialak berreskuratzen dituztenak dira. Horien artean aurkitzen ditugun balioak honakoak dira: mutualitatea, komunitatea zerbaiten parte izatearen elementu gisa, zuzentasuna eta gardentasuna asegurudunentzako kontratuetan edo klausuletan.

Aseguru etiko eta solidarioen helburua

Helburua merkatu soziala sustatzea da, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko sare gisa ulertuta. Guztiek irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioen bidez egiten dute lan.

Haien helburua kontsumitzaile, hornitzaile eta banatzaileentzako espazio bat sortzea da, herritarrek bertan konpromiso sozialaz kontsumo aukera egin dezaten, parte hartzen duten erakundeen arteko elkarlana indartuz.

Aseguru etikoen eta merkatuan dauden beste aseguruen arteko desberdintasun nagusiak

Aseguru etiko eta solidarioak kontzeptu berria dira, praktika etikoa eta solidarioa merkatuan sartzen ahalegintzen direlako, horiek baitira aseguru mugimenduaren printzipioak.

1. Mutualitatearen balioa

Aseguruen merkatua praktika etiko eta solidarioetara bideratuz, aseguruen mugimenduaren printzipioak berreskuratzen dira. Kontzientzia mutualista pertsonen arteko elkartasun loturetan oinarritzen da batez ere. Aseguruaren jatorrizko zentzua, hain zuzen ere, komunitate bateko kideen arteko loturak ezartzea da.

Kalterik ez jasateko zortea dutenen eta, aldiz, jasaten dutenen artean (istripua,

gaixotasuna, ondasunak suntsitzea, etab.) sortzen diren harremanek komunitate bateko kide guztiek aseguruaren estalduraren abantaila izatea ahalbidetzen du.

Irizpide mutualistaren arabera, ezin da inolako diskriminaziorik egin zerbitzu horiek eskatzen dituztenen artean, ez adinagatik, ez ezintasunagatik eta ezta bestelako arrazoi sozialengatik ere.

2. Aseguruak komunitatean

Aseguru mota hau komunitatearentzako zerbitzu abantailatsutzat eta lurraldearentzako onura gisa ulertzen da. Kideak bere patuari uzten ez dizkion komunitateak elkartasun tresnak ditu ezbarreari aurre egiteko.

Komunitate batentzat hobe da arazoen konponbidea edukitzea, horiek aurreikusteko eta azkar konpontzeko. Sistema honen bidez, desberdintasun soziala saihesten da eta arazoei aurre egiteko baliabide ekonomikoak dituztenen eta horiek ez dituztenen arteko haustura ekiditen da.

3. Zuzentasuna

Aseguru kontratua parekoen arteko kontratua izan behar da, bereizketarik egin gabe. Horrela, bi aldeek duintasun bera dute. Ezin dira haien arteko botere desorekarik ezarri, ez produktuaren baldintzengatik, ez buroraziarengatik, etab.

Aseguru konpainien funtzioa pertsonak eta erakundeak informatzea da, haien eskubideen berri izan dezaten.

4. Gardentasuna

Prozesu hau aurrera eramateko gardentasuna ezinbestekoa da. Kontratuetan islatu behar da, eskainitako zerbitzuei buruzko informazio argia eta ulergarria eman dezaten. Finantza kudeaketan eta enpresaren inbertsio-politikan ere gardentasuna beharrezkoa da.

ETHSI ZIGILUA

FETS-en Finantza Etikoen Behatokiak Europako EthSI (Ethical and Solidarity based Insurance) aseguru etikoaren zigilua sortu zuen 2008an. Europa mailan patentatutako zigilua da eta helburu bikoitza du: batetik, herritarrek haien balioen arabera funtzionatzen duten mutualitate, aseguru konpainia edo bitartekaritza aukeratzeko lagunduko duen tresna izatea. Bestetik, aseguruaren sektorean praktika etikoa eta solidarioa sustatu eta bultzatzea.

Garrantzitsua da helburu bikoitz honetan EthSI zigiluaren oso alderdi berezia eta oinarritzakoa azpimarratzea. Bereizgarriaren bidez pertsona, entitate eta administrazio publikoen aldetik aseguruaren arloan kontsumo arduratsua sustatu nahi izatea gaur egun dauden gainerako ziurtagiriek (bidezko merkataritza, elikagai ekologikoak ...) partekatutako alderdia da. Balio erantsia honakoa da: munduko aseguruaren erakundearen prozesuak aseguru praktika sozialago eta ingurumenarekiko jasangarriago baterantz joatea egiaztatu nahi izateak, honela aseguruaren munduaren jatorria izan ziren mutualitatea, zuzentasuna eta gardentasuna berreskuratzeko, eraldaketa bokazioa erakusten du.

Horretarako, Behatokiak ziurtagiria lortzeko edo berritzeko haien burua aurkezten duten erakundearen inguruko azterketa sakona egiten du hainbat arlotan: komunitatearekiko eta lurraldearekiko ardura; gardentasuna; ingurumenarekiko ardura; lan-ardura; sozietate-egitura; gobernantza eta funtzionamendu

demokratikoak, eta inbertsio etikoak. Arlo horietako bakoitza objektiboki ebaluatzen da, baina badago ere ebaluazio subjektibo bat, osagarria dena, dena testuinguruan jartzen duena eta erakunde bakoitzaren errealitatearen azterketa hobea egitea ahalbidetzen duena.

Aztertutako arloen ikusgarritasuna eta betetze maila hobetzeko, EthSI zigiluak hiru erregistro maila ditu mutualitateen eta aseguru konpainien kasuan (E1, E2 eta E3 Insurance) eta bi bitartekaritzen kasuan (E1 eta E2 Management). Bi kasuetan, 1 da nota onena.

Irizpideak betetzerakoan egindako mailakatze horrek aukera ematen du ziurtagiria prozesu eta etengabeko logikaren bidez ulertzeko.

Bereizketa honek besteekin alderatuta duen balio erantsia eraldaketarako bokazioa da

Ziurtagiriak lortzeak irizpideak gutxienez betetzea eta kuota ordaintzea suposatzen du. Behatokiaren aldetik interes gatazka posibleak ekiditeko, EthSI zigiluak bere ziurtapen prozesuan ekonomia sozial eta solidarioaren munduan historia luzea duten erakundeetako pertsonak osatutako ebaluazio batzorde independentea erabiltzen du. Batzorde honek analisi sakona ahalbidetzen du, objektiboa eta subjektiboa. Aldi berean, hobetu daitezkeen alderdiak proposatzen ditu, eta horrek eraldaketa prozesu aktibo hori sortzen du erregistratutako erakundeengan.

